

HITZAURREA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.20090

Datorren urtean, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) 100 urte beteiko ditu. Versalleseko Itunaren bidez sortutako erakundearen abiapuntuak hauek izan ziren: bake unibertsalaren eta iraunkorraren oinarria bake soziala dela; bidegabekeriek, miseriak eta gabeziek eragiten duten atsekabea mehatxua dela munduko bakearentzat eta harmoniarentzat; baldintza horiek hobetzea premiazkoa dela; eta lan sistema onbera ezartzen ez duen nazioa oztopo bihurtzen dela lan baldintzak hobetu nahi dituzten nazioen ahaleginetarako (LANEn Konstituzioko Hasiera).

LANEn mendeurrena eta hark egindako lana aitortzeko, mota eta maila desberdineko ekintzak antolatu dituzte munduan zehar: LANEk, berak, nazioarteko sinposio bat, esaterako. Baina, nahiz eta entitate txikia eta umila izan, guk geure omenaldia egitea nahi izan dugu, ere bai.

Horrela, LANEn mendeurrena ospatzeko asmoz, *Lan Harremanak* aldizkariaren 39. zenbaki honetan, LANEk lan duina lortzearen egindako saiakerei buruz hitz egingo dugu eta, baita ere, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Seguratasunaren eta Osasunaren eremuetan egindakoari buruz. Azkenik, sektore zehatzetan lan baldintzen hobekuntzarako egindako ahaleginak aipatuko ditugu.

Zati monografikoaren lehen artikuluren izenburua «En las antípodas del Trabajo Decente: el Trabajo Forzoso» da eta, bertan, Tania García Sedano anderea nahitaezko lanari buruz arituko da; azken finean nahitaezko lana lan duinaren aurkakoa baita eta nahitaezko lana ezabatzeko berehalako politika eta neurri eraginkorrak ezarri behar baitira.

Ondoren, laneko baldintza duinak lortzeko oso garrantzitsuak diren bi gai aztertuko ditugu: Gizarte Segurantza eta Laneko Seguratasuna eta Osasuna. Pilar Callau Dalmau andereak idatzitako «La seguridad social: un elemento fundamental del mandato de la OIT desde su creación en 1919» artikuluan LANEk Estatu ezberdinetan oinarritzko babes soziala bermatzen duten gizarte seguran-

tzako sistemak onartzeko egin dituen ahaleginak azaltzen dizkigu. Bestetik, María Salas Porras andereak «Seguridad y Salud en las Relaciones Productivas: El Enfoque Relacional como sustrato para el Trabajo Decente en el contexto de la digital-robotización» izenburua duen artikulua aurkezten digu eta horretan laneko osasunak eta segurtasunak, digitalizazioaren garaian, lan duina lortzeko garrantzia azaltzen digu, kontuan izanik, oraindik, nazioartean eta Europar Batasunean ez dagoela digitalizazioaren bidez egindako lanaren erregulaziorik.

LANEk laneko sektore ezberdinetan egindako lana aipatzearren, hiru artikulua topatuko dituzue aldizkariaren ale honetan. Asunción López Arranz anderearen artikuluan, «Los desafíos del sector pesquero y su tratamiento por la OIT, datorren urteetan arrantzak izango dituen erronkak zeintzuk diren aipatzen dira, kontuan izanik sektore hau, alde batetik, enplegu sortzailea dela eta, bestetik, munduko herritarren elikadurarako garrantzi handikoa dela. LANEn helburua sektore horretako langileen bizi eta lan baldintzen hobekuntza lortzea izango da. «La labor de la Organización Internacional de Trabajo respecto a la marina mercante», María Isabel Ribes Moreno andereak idatzitako artikuluan, LANEk sektore horretako errealitateari egokitzeko izan duen gaitasuna aitortzen da. Hurrengo artikuluan, berriz, prekarizaturik dagoen sektore bati buruz ari-tuko da José Fernando Lousada Arochena jauna. «Normativa internacional contra la explotación humana y laboral en el trabajo doméstico: la ONU y la OIT» artikuluan Lousada jaunak etxeko lana arautzen duten nazioarteko arauak aztertzen ditu eta hori abiapuntutzat hartzen du Espainiak hartu behar dituen neurriak zeintzuk diren azaltzeko.

Azkenik, aldizkariaren atal irekian bi artikulua aurkezten ditugu: «El principio de voluntariedad como presupuesto sustantivo del trabajo a tiempo parcial» artikulua Pilar Callao Dalmau andereak idatzia eta «Familia y orientación laboral en la conformación del objetivo profesional de jóvenes universitarios en búsqueda de empleo», Antonio Martínez López jaunak idatzia.

Lan Harremanak. Revista de Relaciones Laborales aldizkariaren 39. zenbakia interesgarria izango zaizuela espero dut.

Miren Edurne López Rubia